



PRENTSA OHARRA

Vitoria-Gasteiz, 2015eko martxoaren 30a

OSALANEK LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO EUSKAL ESTRATEGIA BERRI BAT DISEINATU DU 2015-2020 ALDIRAKO

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Ángel Toñak, Bilbon, 2015-2020 aldirako Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Euskal Estrategiaren aurkezpen-ekitaldia itxi du. Estrategiari buruzko dokumentuan, Osalanek aldi horretan, laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, garatuko dituen politikak eta jarduketak jaso dira.

Sailburuak, strategiaren aurkezpen honetan agerraldia egin du laneko segurtasuneko eta osasuneko aditu-talde handi baten aurrean, eta Toña sailburuak estrategia lantzen parte hartu duen giza talde guztiak elkar ulertzeko egin duen ahalegina eta borondatea nabarmendu ditu. Lankidetzaz-espíritu horixe eskatu die lan-munduan elkarri eragiten dioten agente guztiei, hau da, administrazioari, enpresei eta langileen ordezkari guztiei «bakoitzak duen ardura-mailaren arabera», adierazi du.

Estrategia propiotzat jotzen da 2015eko Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko Euskal Estrategia, eta eredu produktibo nahiz soziolaboral batera egokituta dagoen estrategia da.

Askotariko agenteek parte hartzea, bai instituzionalek bai kanpokoek, proiektuaren filosofiaren funtsezko elementuetako bat izan da. Dokumentuaren aurkezpenean, Osalaneko zuzendari Izaskun Urienek hau adierazi du: «Partaidetza honen xedea izan da helburuak hobeto lerrokatzea, sinergiak aprobetxatzea eta baliabideak optimizatzea, baita aurreko planetan aurreikusitako koordinazioa eta lankidetzaz hobetzea ere.»

Estrategia berrian aldagai hauek sartu dira: enpresen tamainari buruzko espezifikotasunak, emakumeen lan-baldintzak, desgaitasuna, helduenak diren kolektiboak, familiako eta laneko bizitza uztartzea eta ekoizpen-ereduen zahartzea. Era berean, kontuan izan dira faktore sozioekonomiko berriak (ez soilik laneko arriskuei lotuta daudenak), esaterako, lan-harremanen esparruko aldaketa, negoziazio kolektiboak duen egoera zaila eta Espainiako nahiz Europako atzeraldi ekonomiko sakona; izan ere, faktore horiek arazo honekiko antzinako hurbilpenen funtsezko elementuak aldatu dituzte.